



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Herri lan eta Garraio Saila
Departamento de Obras
Públicas y Transportes

BIZKAIKO FORU ERREPIDEETAKO SOINU KALITATEA HOBETZEKO EKINTZA PLANAREN memoria. 2014-2019 ALDIA.



Behin betiko onespena

2015/03/27

“Bizkaiko foru errepideetako soinu kalitatea hobetzeko Ekintza Planaren memoria. 2014-2019 aldia”.

AURKIBIDEA

1.	Xedea	3
2.	Erreferentziazko legegintza esparrua	3
3.	Ekintza Planari oinarria ematen dion Zarata Maparen emaitzen laburpena	4
4.	Ekintza Planaren eraginpeko lurralde eremuari lotutako bestelako Planak eta Programak	6
5.	Kalitate akustikoko helburuak gainditzeko gunek zehaztu eta lehenestea	6
5.1	Kanpoaldeko giroan KAHak betetzen ez dituzten gunek zehaztea	6
5.2	Barnealdeko giroan KAHak betetzen ez omen dituzten eraikinak zehaztea	8
6.	Epe luzerako estrategia, lehenespena eta hurrengo 5 urteetarako jarduketak	9
6.1	Epe luzerako estrategia	9
6.2	Hurrengo 5 urteetarako jarduketak (Estrategiaren 6.3 ekintza ildoak)	11
6.2.1	5.1 idatz-zatian zehaztu diren eta kanpoaldeko giroan KAHak betetzen ez dituzten gunetarako jarduketak	11
6.2.2	Kanpoaldeko giroan KAHak betetzen ez dituzten gunetarako bestelako jarduketak	12
6.2.3	5.2 idatz-zatian zehaztu diren eta barnealdeko giroan KAHak betetzen ez omen dituzten eraikinetarako jarduketak: Fatxadak Isolatzeko Plana zehazteko irizpideak	14
7.	Eragindako pertsonen murrizketaren balioespena	15
8.	Ezarri beharreko neurrien zenbatekoa eta egikaritzapen plana	16
8.1	Proiektuei lotutako jarduketak	16
8.2	Jarduketa zuzentzaileak	16
9.	Hori abiarazteaz arduratzen diren eragileak zehaztea, baita guneko planak prestatzeaz arduratzen diren pertsonak edo erakundeak ere	18
10.	Jarraipen Plana	19
11.	Jendaurreko izapideko alegazioak edo oharrak	19
12.	2008-2012ko Ekintza Planaren betetze maila	20

1. Xedea

Dokumentu honen helburua foru errepideek Bizkaiko Lurralde Historikoan sortzen duten zarataren aurka jarduteko estrategia aurkeztea da.

Horrela, indarreko esparruko lege eskakizunei erantzuten zaie, eraginak zehaztuta eta hurrengo 5 urteetan jarduketak garatuko dituzten guneak lehenetsita.

Dokumentu honen edukien eskema bat dator *Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko* 17. artikuluan xedatutakoarekin.

2. Erreferentziako legegintza esparrua

Foru errepideek sortzen duten zarata kudeatzeko eta hobetzeko Ekintza Plan hau garatzeko indarreko lege esparrua estatuko eta autonomiako legedian oinarritzen da. Jarraian, foru errepideei dagokienez, legedi horretatik aplikatu beharreko eskakizunak zein diren zehaztuko da.

	37/2003 Legea, 1513/2005 ED eta 1367/2007 ED	EAEko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretua
Kalitatearen helburu-balioak eta mugabaliok	37/2003 Legeko 4. artikulua eskumen banaketa oinarri hartuta, ez da aplikagarria	Aplikagarria da
Zarata mapak	Zarata mapa estrategikoak prestatzeko egutegia: egunean 8.000 ibilgailu baino gehiago dituzten bideak.	EAEko zarata mapak: egunean 6.000 ibilgailu baino gehiago dituzten bideak.
Ekintza Planak	Zarata mapa estrategikoen epeen mendeko bideak (egunean 8.000 ibilgailu baino gehiago)	EAEko zarata maparen barneko bideak (egunean 6.000 ibilgailu baino gehiago)
Ekintza Planen gutxienezko edukia	1513/2005 EDko V. eranskinaren arabera	213/2012 Dekretuko 17. artikuluan adierazitakoa.

Beharbada EAEko zarata mapak eta zarata mapa estrategikoak garatzeko egutegiak ez dira bat etorriko; horrek esan nahi du Ekintza Planen bi dokumentu daudela, bata estatuko legediari lotuta, eta bestea, aldiz, autonomiako legediari.

Hala eta guztiz ere, koherentzia printzipiotik errepideen eraginari lotutako kontuei oro har eta modu koordinatuan erantzun beharra ondorioztatzen da.

Horregatik, Bizkaiko errepideei buruzko soinu kalitatea hobetzeko Ekintza Plana dokumentu bakarra izango da, zarata mapa eginda duten eta Bizkaian foru eskumeneko ardatz guztiekin

bat datozen foru sareko bide guztiei erantzungo diena. Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailak gauzatutako kutsadura akustikoaren kudeaketa 213/2012 Dekretuak ezartzen dituen lege eskakizunetatik harantzago doa, egunean batez beste 6.000 ibilgailu baino gehiago dituzten errepideetarako Zarata Mapak eta Ekintza Planak prestatu beharra foru azpiegitura guztiei ezarri baitie.

Estatuko oinarritzko legedia betetzeko asmoz, Ekintza Plana EAEko ingurumen organoari bidaliko zaio, ondoren Europako Batzordeari bidaltzeko *Giro hotsaren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2002/49/CE Zuzentarauari* erantzunez.

Bizkaiko foru errepideei buruzko Zarata Mapak estatuko legediaren zein autonomiako legediaren ikuspuntuetatik aplikatu beharreko eskakizun metodologikoak betetzen dituzte, eta errepideen sare osoa continuum baten moduan tratatzen dute, lurraldearen eremu berean eragin akustikoa duten hainbat foru errepideren arteko ondorio osagarrien ondorioz eraginak zehazteko asmoz.

Ekintza Plan honek martxan dauden eta aurretik dauden egoeretan edo egoera finkatuetan dauden foru errepideek sortzen dituzten eragin akustikoak zehaztu baino ez du egingo. Hala eta guztiz ere, Sailak eragina prebenitzeko zein horretatik babesteko neurriak ezartzeko finkatu dituen jarraibideak zehaztuko dira.

Eraginak zehazteko aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak 213/2012 Dekretuan arautu dira, Lehentasunezko Hots Ekintzen Eremuen eta Lehentasunezko Hots Jarduketan Planen bidez.

Gaur egun dauden errepideen eraginez gain, Plan honek 2014-2019 aldian egikaritutako omen diren etorkizuneko azpiegiturei lotutako neurri zuzentzaileak ere barne hartuko ditu.

Amaitzeko, Plan honek 213/2012 Dekretuko 30.1 artikuluari erantzutea ahalbidetzen du, errepideetako Hots Zortasuneko Eremuetako ondorioei dagokienez, dekretu horretako I. tituluko II. kapituluan Bizkaiko Foru Aldundiak Hots Zortasuneko Eremutzat jo dituen errepideetarako ezarritako aginduak jasotzen baititu (*4523/2013 Foru Agindua, irailaren 18koa, 2013ko irailaren 24ko BAOn argitaratutakoa*).

3. Ekintza Planari oinarria ematen dion Zarata Maparen emaitzen laburpena

Ekintza Plana Bizkaiko foru errepideen sare osorako prestatu ziren eta azaroaren 28ko 5799/2013 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren Zarata Mapak kontuan hartuta garatu da.

Zarata Mapak prestatzeko bi parametrori erantzuten dieten kalkulu akustiko batzuk garatzea dakar:

- Lurretik 4 metrora dauden foru errepideek sortutako hots mailak (isofonoen mapen bidez irudikatutakoak)
- Eraginpeko eraikinetako fatxaden maila guztietan dauden foru errepideek sortutako hots erasotzailearen mailak (fatxaden mapen eta eraginpeko biztanleen eta/edo eraikinen emaitzen taulen bidez irudikatutakoak).

Jarraian, kalkulu horien emaitza nabarmenenak zehaztuko dira, laburpen gisa. Horietan L_{gaua} indizea parametro txarrentzat jo da, zirkulazioaren ordu banaketaren ondorioz foru errepideetan dauden ekoizpen mailen arabera.

Halaber, gaueko aldia lehentasunez babestu beharreko eguneko alditzat jotzen da, hotsak loa asaldatu, eta pertsonen osasunari eragiten baitio. Dena den, hezkuntza, kultura eta ospitale (edo osasun) eraikinei dagokienez, eguneko aldia erreferentziazat hartzen da, horiek erabiltzeko unea horixe baita.

Emaitzak aztertzeko, L_{gaueko} 55 dB(A) hartzen dira erreferentziazat, kalitate akustikoko helburua egoitza erabilera nagusi duen lurzoruari aplikatzen baitzaio.

L_{gaueko} 55 dB(A)tik gorako mailak dituen azalera

Guztira, L_{gaueko} 55 dB(A)tik gorako mailak dituen Bizkaiko azaleraren ehunekoa % 2,62koa da.

L_{gaueko} 55 dB(A)tik gorako mailen eraginpean dauden biztanleak

Guztira, L_{gaueko} 55 dB(A)tik gorako mailen eraginpean dauden Bizkaiko biztanleen ehunekoa % 3,57koa da.

L_{eguneko} 60 dB(A)tik gorako mailen eraginpean dauden eraikinen analisisa

Bizkaian 208 (hezkuntza, osasun eta kultura) eraikin daude zarataren eraginpean, guztira.

Plan honetako 5. idatz-zatian aipatutako jarduketak zehazteko eta 5 urterako lehentasunak zehazteko, 6.2 idatz-zatian adierazi bezala, Lurralde Historiko osoaren errealitatea hartzen da aintzat, udalerrri zehatz bateko kokapen zehatza kontuan hartu gabe.

4. Ekintza Planaren eraginpeko lurralde eremuari lotutako bestelako Planak eta Programak

2012ko uztailaren 10ean, Bizkaiko Foru Aldundiak, Herri Lan eta Garraio Sailaren eta Ingurumen Sailaren bidez ordezkaturata egon zenak, *Soinu Kalitatea Hobetzeko Bizkaiko Estrategia 2013-2017* onetsi zuen. Dokumentuak Bizkaiko Foru Aldundiak 213/2012 Dekretuak ezarritako eskumenen testuinguruaren barnean eta kutsadura akustikoa kudeatzearen eta balioko soinuak babestearen arloan garatuko dituen jarduketa zehatzak zehaztu ditu.

Estrategia horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren zarataren arloko lan esparrua zehazten du, berariazko arazoei erantzuteko Ekintza Plan zehatzak garatzea dakarrena. Esate baterako, plan honek foru errepideek Bizkaiko Lurralde Historikoan sortzen duten eragin akustikoari erantzuten dio.

5. Kalitate akustikoko helburuak gainditzeko guneak zehaztu eta lehenestea

Idatz-zati honen helburua Bizkaian kalitate akustikoko helburuak (KAH) gainditzen dituzten arlo urbanizatuak zehaztea¹ da, honako helburu hauek aintzat hartuta:

- Lehenik eta behin, 213/2012 Dekretuak kanpoaldeko girorako ezarritako kalitateko helburuak betetzen direla zaintzea.
- (Eraginpeko mailak oinarri hartuta) beharrezkoa denean eta kanpoaldeko girorako jarduketak teknikaren edo ekonomiaren aldetik bideragarriak ez direnean, 213/2012 Dekretuak barnealdeko girorako ezarritako kalitateko helburuak betetzen direla zaintzea.


5.1 Kanpoaldeko giroan KAHak betetzen ez dituzten guneak zehaztea

Bizkaian epeko 6.478 egoitza eraikin daude, guztira, kalitate akustikoko helburuak gainditzen dituen fatxadaren bat dutenak.

¹ Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuko 2. artikulua definizioari lotuta, zonifikazio akustikoari, kalitateko helburuei eta ekoizpen akustikoei dagokienez.

Errealitate horrek badakar KAHak betetzen ez dituzten guneak zehaztu eta hierarkizatzea, haien eraginpeko maila oinarri hartuta, lehenik eta behin, eragin handiena jasotzen dutenei erantzun ahal izateko.

Eraginpeko maila indize batek zehazten du, hiru aldagai batera kontuan hartzen dituenak: zarataren eraginpean dauden biztanleak (jasan beharreko hots mailen arabera haztatutakoak), zarataren eraginpean dagoen azalera eta eraginpean dauden eraikinen (hezkuntza zentroak, egoitzak eta osasun eta kultur zentroak) kopurua. Arlo horiek aurkezteko ordena eraginpeko mailaren arabera da (handienetik txikienera).



1. irudia: Irudiak Bizkaiko foru sare osorako egindako eraginpeko mailaren analisia irudikatzen du. Horretan lehentasun txikiko (berdeak), ertaineko (horiak), handiko (laranjak) edo oso handiko (gorriak) gelaxkak dituzten arloak hausnartu dira, horiek baitira eraginpeko maila handiena daukatenak. Gelaxkek 500x500 metroko azalera daukate.

Gelaxken kopurua kontuan hartuta eta Ekintza Plan honen esparruan, gelaxka horiak, laranjak edo gorriak daukaten guneak baino ez dira hausnartuko.

Irizpide horien arabera, Bizkaian 17 gune zehaztu dira, guztira.

Guneen zerrenda horretan ez dira lehentasunezko zatik jo antolamenduz kanpoko eraikinak dituztenak, kanpoaldean hots mailak murrizteko jarduketak egitea teknikaren edo ekonomiaren aldetik bideragarria ez dutenak eta aurretik eragin akustikoa murrizteko jarduketak gauzatu dituztenak.

Gainerako guneak hierarkikoki antolatuko dira, lehentasunezko jarduketaren ordena zehazteko eta Lehentasunezko Ekintza Eremutzat jotzeko, 213/2012 Dekretuan ezarritakoa oinarri hartuta². Ordena hori zehazteko irizpideak honako hauek dira:

- Inguruan eraikinak dituen errepidearen ardatzeko metro linealetan KAHak betetzen ez dituen kanpoko fatxadaren bat duten eraikinetako biztanleen ratioa. Ratio handiagoa duten guneak lehentasunezkoztat jotzen dira, uste baita jarduketa baten eraginkortasuna handiagoa izango litzatekeela. Horrela, eraikin horietan bizi diren biztanle guztiak kontuan hartzen dira, jarduketak guztiei on egingo baitie (KAHak betetzen dituzten edo ez dituzten mailen eraginpean dauden alde batera utzita).
- Gelaxka gorriak egotea.
- Eraginpeko eraikinak (ikastetxeak, ospitaleak) egotea.

5.2 Barnealdeko giroan KAHak betetzen ez omen dituzten eraikinak zehaztea

Eraginpeko maila handiko gune guztietako kanpoaldeko giroan jardun eta gero, 213/2012 Dekretuak ezarritako kalitateko helburuak 10 dBA-tik gora betetzen ez dituzten soinu erasotzailearen mailen eraginpean dauden kanpoko fatxadak dituzten (egoitza, hezkuntza, kultura eta ospitale edo osasun) eraikinei erantzun beharra zehaztu da. Erreferentziatzko balioarekiko soberakin hori eraikin horietarako berariaz jarduketa zehatzak zehaztu beharretik ondorioztatzen da.

Halaber, Planaren eremu objektiboa dira, kanpoko fatxadako eraginpeko mailen ondorioz, barnealdean kalitate akustikoko helburuak gainditzen dituzten eraikinak.

Eraikinen inbentarioaren emaitzak antolamenduz kanpo ez dauden eta, beraz, zehatz-mehatz aztertzeke lehentasunezkoztat jotzen diren 329 eraikin aipatu ditu.

Etxebizitzan zerrendatik baztertuko dira 5.1 idatz-zatian zehaztutako lehentasunezko ekintza eremuan kokatzeagatik hobetuko diren eraikinak.

Azkenean hautatzen diren eraikinei dagokienez, beharrezkoa izango da eragin handiena jasotzen duen fatxadaren barruti mota zehaztea, esku-hartzearen beharra zehazteko. Logelak dituzten fatxadetan jardungo da. Eraikin horien analisia eta hobekuntza jarduketan ezarpena

² Autonomiako araudi horretako 4., 5. eta 6. artikuluetan ezarritako eskumen banaketa oinarri hartuta eta zarata guneen kudeatzaileen kasuan, LEEen mugaketa, Lehentasunezko Ekintza Planen garapena eta neurri zuzentzaileak gauzatzeko ordenaren zehaztapena kudeatzaileari berari dagozkio (ikus 213/2012 Dekretuko 49. artikuluko 3. idatz-zatia).

Isolamendu Akustikoko Plan baten esparruan garatuko dira, eta horren ardatz nagusiak 6.2 idatz-zatian aipatuko dira.

6. Epe luzerako estrategia, lehenespena eta hurrengo 5 urteetarako jarduketak

Idatz-zati honen helburua Plan honen garapen esparrua eta hurrengo 5 urteetan garatuko diren jarduketak zehaztea da.

6.1 Epe luzerako estrategia

Dokumentu honen 4. atalean aipatutako *Soinu Kalitatea Hobetzeko Bizkaiko Estrategia 2013-2017k* soinu kalitatea hobetzeko helburu estrategikoak garatzen ditu. Hauexek dira:

- Bizkaia soinu-bikaintasunerako lurralde bihurtzea, herritarrek eta administrazioek soinuak baliabide gisa zaintzeko dituzten gaitasunez eta ekarpenez jabeazteko, baita zarata kutsagarri gisa murrizteko ere.
- Foru Aldundiaren politika guztiak baldintzatzen dituen aldagai gisa sartzea soinua.
- Kultura komuna sortzea Lurralde Historikoan, “egiteko era” bat, kutsadura akustikoa kudeatzeko.

Estrategiaren helburua epe luzerako ibilbide-orria izatea da, Bizkaiko Foru Aldundiak zarataren eta soinuaren kudeaketaren arloan garatuko dituen jarduketa guztiak barne hartzen dituen.

Estrategia printzipio gidari eta jarduketa ildo batzuetan egituratzen da (ikusi honako hau: http://www.bizkaia.net/home2/Bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Not_Codigo=11993&Idioma=CA)

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Saila sartuta duten eta 2013-2017 aldian haren partaidetza izango duten jarduketa ildoak zehaztuko dira:

1. printzipio gidaria: Koordinazio instituzionala indartzea Bizkaian kutsadura akustikoaren arloan eta Lurralde Historikoaren kalitate akustikoaren segimendua egitea.

1.2 ekintza ildoak: Arazo instituzionalak koordinatzea eta desadostasunak konpontzea.

- 1. zeregina. Foru errepide guztien zortasun akustikoko zonaldearen mugaketa eta komunikazioa.

1.3 ekintza ildoak: Lidergoa eta partaidetza izatea eta kutsadura akustikoa kudeatzeko Jarraipen Batzordea mantentzea Bizkaian, baita zehazturiko mekanismoen jarraipena egitea ere.

- 1. zeregina. Batzordearen bilera bat edo laneko jardunaldi bat urtean.

2. printzipio gidaria: Sostengua ematea herri administrazioei kutsadura akustikoaren kudeaketaren arloko eskumenak betetzeko.

2.1 ekintza ildoak: Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea zarataren aldetik garrantzitsuak diren datuak partekatzeko eta trukatzeko Lurralde Historikoko administrazioen artean.

- 1. zeregina. Informazioa elkarri emateko beharrezko protokoloak zehaztea eta tresnarik hoberenak identifikatzea.

3. printzipio gidaria: Kutsadura akustikoa kudeatzeko prozesuei koherentzia emateaz arduratzea maila guztietan Bizkaian:

3.1 ekintza ildoak: Zarataren kudeaketa IEE eta IES prozesuetan txertatzea.

- 1. zeregina. Plan berezien eta bide proiektuen kontratazio pleguak berrikustea eta eguneratzea 213/2012 Dekretuaren eskakizunetara egokitzeko.

3.2 ekintza ildoak: Bizkaiko administrazioetako teknikarien eta beste profesional batzuen prestakuntza (abokatuen edo arkitektoen elkargoak, etab.).

- 1. zeregina. Prestakuntza jardunaldiak Saileko teknikariei, 213/2012 Dekretuari buruzkoak.

3.3 ekintza ildoak: Gida teknikoak eta prozedurakoak garatzea kutsadura akustikoaren alderdiak kudeatzeko, soinuak balioesteko eta soinuaren dimentsioa sektoreko edo zeharkako planetan txertatzeko (agenda 21, mugikortasuna, etab.).

- 1. zeregina. Gida teknikoak: "Bizkaiko lurralde historikoko foru errepideen zortasun akustikoko zonaren mugaketa"
- 2. zeregina. Sailaren gida teknikoak 213/2012 Dekretuari egokitzea.

4. printzipio gidaria: Herritarrak kutsadura akustikoa kudeatzeko prozesuetan integratzea.

4.2 ekintza ildoak: Herritarrak kutsadura akustikoaren eta soinuak zaintzearen garrantziaz jabeazteko eta informazioa emateko jarduketak.

- 1. zeregina. Herritarren eskariei erantzuna ematea.

4.3 ekintza ildoak: Bizkaiko Foru Aldundiak eginiko lana ezagutaraztea herritarrei: kezak biltzea.

- 1. zeregina. Bizkaiko Foru Errepideen Ekintza Plana garatzeko prozesu parte-hartzailea, 2013/2012 Dekretuaren 18. artikuluan zehazturikoarekin bat etorritik.

6. printzipio gidaria: Eremu sentikorak kutsadura akustikotik babestea foru eskumeneko garraioaren azpiegituren inguruan.

6.1 ekintza ildoak: Bizkaiko Azpiegituren Soinu Azterketa garatzea, eguneratzea eta mantentzea.

- 1. zeregina. Kalkulu akustikoak eguneratzea.
- 2. zeregina. Arauetan exijituriko dokumentazioa egitea³.

6.3 ekintza ildoak: Ezarri beharreko zuzenketa neurriak zehaztea eta burutzea, lehentasunezko hartutako egoerak babesteko.

- 1. zeregina. Zuzenketa neurrien hierarkizazioa.

6.2 Hurrengo 5 urteetarako jarduketak (Estrategiaren 6.3 ekintza ildoak)

5. idatz-zatian adierazitakoaren antzera, hurrengo 5 urteetarako ezarritako jarduketek bi helburu osagarri erantzungo diete:

- eraginaren murrizketa kanpoaldeko giroan
- eraginaren murrizketa barnealdeko giroan

6.2.1 5.1 idatz-zatian zehaztu diren eta kanpoaldeko giroan KAHak betetzen ez dituzten guneetarako jarduketak

213/2012 Dekretuko 5. artikuluko zehazten duen eskumen banaketa aintzat hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak, haren errepideen organo kudeatzailea den Herri Lan eta Garraio Sailaren bidez, eskumena dauka honako honetarako:

“Lehentasunezko ekintza-eremutat jotzea eremu akustikoak, bai eta dagozkien berariazko neurri zuzentzaileak prestatzea, onartzea eta gauzatzea ere beren eskumeneko zarata-fokuetarako lehentasunezko ekintza-planari dagokion esparruan”.

Halaber, 49. artikuluko 3. idatz-zatiak honako hau ezarri du: *“Plana idatzi duen pertsonak edo erakundeak erabakiko du lehentasunezko ekintza-planean aurreikusitako neurriak gauzatzeko hurrenkera; beste administrazio batzuek hurrenkera hori aldatzeko eska badezakete ere, plana idatzi duen pertsonak edo erakundeak hartuko du lehentasunen aldaketari buruzko azken erabakia”.*

Kontu horiek aintzat hartuta eta Plan honetako 5. idatz-zatian zehaztutako kalitate akustikoko helburuak gainditzeko dituzten guneak lehenesteari dagokionez, hurrengo 5 urteetan gauzatu diren jarduketak honako hauek izango direla ezarri da:

³ Horien artean bai Ekintza Plan hau bai Herri Lan eta Garraio Sailak aurretik onetsi dituen Zarata Mapen garapena daude.

Jarduketa barne hartzen duen udalerria	Eraginari lotutako bide nagusia	Jarduketa mota	Deskribapen laburra
Bilbo	A-8	Bilborako sarbide berriak eta Sabino Arana kaleko biaduktuaren eraispena	Bilborako sarbide berriak, zarataren aurkako jarduketaren bidez diseinatu direnak. Sabino Arana kaleko sarbidearen eraispena
Galdakao	N-634	Pantailak instalatzeko eta zirkulazioa baretzeko jarduketa bateratua aztertzea	Errepidearen eraikinekiko hedapen eta zeharkako sekzioko baldintzak zehatz-mehatz aztertzea dakar, balizko jarduketak aztertzeke.
Zaldibar	AP-8	Eraginpeko eraikinerako funtsean aplikatzeko pantaila akustikoa.	Gunean kokatutako eraginpeko eraikina babesteko pantaila diseinatzea.
Bilbo	A-8	Eraginpeko eraikinerako funtsean aplikatzeko pantaila akustikoa.	Gunean kokatutako eraginpeko eraikina babesteko pantaila diseinatzea.

Aurreikusitako jarduketa horietako bakoitza neurri zuzentzailea gauzatzeko proiektuari zuzenean lotutako Lehentasunezko Ekintza Planean (LEP) zehaztuko da. LEP horrek 213/2012 Dekretuko 50. artikuluan deskribatutako idatz-zatiak bilduko ditu.

6.2.2 Kanpoaldeko giroan KAHak betetzen ez dituzten guneetarako bestelako jarduketak

Idatz-zati honen barnean, Ekintza Planean lehenetsi gabeko beste gune batzuetan kanpoaldeko giroan mailak murrizteko neurri zuzentzaileak barne hartzen dira. Jarduketa horiek bi motatakoak dira.

Soinua hedatzeko barrerak garatzea.

Jarduketa zehatz horietarako kokapenen hautaketa honako irizpide hauek oinarri hartuta egin da:

- Neurri zuzentzaileak instalatzeko erraztasun teknikoa.
- Populazio-dentsitate txikiak edo ertainak dituzten eraikin isolatuak.

Zenbait kasutan jarduketa horiek pantailen berrerabilerari lotuta daude, eta kasu guztietan kalitate akustikoko helburuak betetzen ez dituzten eremuak.

Errepidea	Kokapena	Hasierako KP – Amaierako KP	Altuera	{"Mota"}
AP-8	Aitua (Berriz)	83+400-83+500	2 metro	Metaldun metakrilatoa
AP-8	Erdikoetxe (Galdakao)	102+950-103+116	2 metro	Metaldun metakrilatoa
AP-8	Arregi (Zornotza)	94+895-95+030	2 metro	Metaldun metakrilatoa

Pantaila horiek ez ezik, beste batzuk ere garatuko dira; pantaila horien kokapena eta ezaugarriak urtero erabakiko dira, Bizkaiko foru errepideen informazio akustikoa aldizka eguneratzeko prozesuaren barnean zehazten diren lehentasunak oinarri hartuta.

Saihesbideak eta errepideetako ardatzak garatzea.

Idatz-zati honen barnean, errepideen obra batzuk aipatu dira. Obra horiek ez daude beren-beregi lotuta soinu kalitatea hobetzeko Ekintza Planaren egikaritzapenarekin, eta, gainera, saihesbideak inguratzen dituzten zeharkaleetako hots mailak hobetzeko funtsezko eragina izateaz gain, foru sarearen beste beharrian batzuei erantzuten diete, adibidez, edukiera, bide segurtasuna, zirkulazioa baretzea eta abar. Horregatik, ez dira kontuan hartu Planaren aurrekontu balioespenen barnean, ezta horren garapenaren onura hartzen duten pertsonen barnean ere. Dena den, uste da horiek aipatu egin behar direla; izan ere, horiek garatuz espero da onura akustikoa lortzea, eraginpean dauden pertsonak murrizteari begira.

Alde horretatik, nabarmena da Bermeoko BI-631 eta Ermuko N-634 saihesbideen egikaritzapena.

Bi kasuetan saihesbidearen garapenak udal zeharkaleetan zirkulazioa murriztea dakar, eta horrek onura akustikoak dakartza gaur egun eragina jasotzen duten eraikinetarako. Onura hori alde aurretik zenbatuko da (KAHak ez betetzea dakarten mailen eraginpean dauden biztanleak murrizteko ondorioetarako), foru errepideen zarata mapak ondoz ondo eguneratzen direnean.

Saihesbide horietaz gain, badaude bi obra berri, Ekintza Planaren 2014-2019 aldiari abiaraziko direnak: Gerediaga–Elorrio ardatza (N-636) eta Zornotza–Muxika ardatzetik bi egitea (BI-635).

Lehen aipatutako jarduketan zenbatekoa hurrengo taulan laburbiltzen da:

Jarduketa	Zenbatekoa (€)
BI-635 barnebidea Zornotza-Gernika, Zornotza- Muxikako tartea	64.753.169
Ermuko N-634 saihebidia	67.844.023
N-636 autobia, Gerediaga-Elorrioko tartea	212.562.000
Bermeoko BI-631 saihebidia	56.355.958

Nabarmendu behar da, Ingurumen ebaluazio estrategikoaren izapidearen barnean, saihebidia eta obra berri horiek guztiek, 213/2012 Dekretuan ezarritako muga-balioak betetzeko, (eraikuntza proiektua garatzen den bitartean) aplikatu beharreko prebentzio neurriak zehazten dituen Azterlan Akustikoa daukatela. Eta, Azterlan Akustiko hori garatzen denean, eragin akustikoa murrizteko neurri edo jarduketa batzuk (hedapenerako oztopoak, eraikinen isolamendua eta abar) diseinatzen dira, eraikuntza proiektu horretako zati izango direnak eta eragin akustikoa saihesteko jarduketetan koka daitezkeenak.

Bizkaiko Foru Aldundiak eraginaren sorrerari eragin diezaioketen errepideen diseinuari buruzko beste esku-hartze batzuk garatuko ditu (kasu gehienetan eragin hori murriztuko da). Alderdi hori dena delako proiektuari lotutako Ingurumen ebaluazio estrategikoaren izapidearen barnean aztertuko da.

6.2.3 5.2 idatz-zatian zehaztu diren eta barnealdeko giroan KAHak betetzen ez omen dituzten eraikinetarako jarduketak: Fatxadak Isolatzeko Plana zehazteko irizpideak

Fatxadak Isolatzeko Planaren helburua kalitate akustikoko helburuekiko 10 dB(A)ko soberakina edo hortik gorakoa dakarten soinu erasotzailearen mailen eraginpean dauden eraikinetako kanpoaldeko fatxaden isolamendua hobetzeko jarduketak zehazteko jarraibideak zehaztu, lehenetsi eta ezartzea da.

Plan honetan funtsezko irizpideak garatuko dira:

1. irizpidea: Isolamendu Akustikoko Planaren Jarduketa Eremua

Planaren xede diren eraikinak zehazteko beharrezko baldintzak zehaztu eta garatuko dira

2. irizpidea: Isolamendu akustikoa hobetzeko jarduketak zehazteko homogeneousuna

Etorkizuneko inbertsioak planifikatzeko lehenespen modu desberdinak aztertuko dira baita ere isolamenduak garatzeko hedatu beharko den protokoloa

3. irizpidea: Isolamenduaren hobekuntza lortzea

Isolamendua hobetzeko jarduketak zehazteko, dB(A)ko $D_{2m,nT,Atr}$ aireko zaratarekiko Isolamendu Akustikoko Balioei dagokien 2.1 taulak aipatzen dituen barruti babestuak baino ez dira aintzat hartuko. Taula hori hemen agertu da: *Zarataren aurka Babesteko HR oinarrizko dokumentua, Eraikuntzako Kode Teknikoaren "DB-HR Zarataren aurkako babesa" oinarrizko dokumentua onetsi duen eta Eraikuntzako Kode Teknikoa onetsi duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretua aldatu duen urriaren 19ko 1371/200 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa:*

$L_{eguneko} dB(A)$	Eraikinaren erabilera			
	Egoitza eta ospitale erabilera		Kultura, irakaskuntza, administrazio eta erlijio erabilera	
	Logela	Gelak	Gelak	Ikasgelak
$L_d \leq 60$	30	30	30	30
$60 < L_d \leq 65$	32	30	32	30
$65 < L_d \leq 70$	37	32	37	32
$70 < L_d \leq 75$	42	37	42	37
$L_d > 75$	47	42	47	42

$D_{2m,nT,Atr}$ isolamendu akustikoko balioak dB(A)tan adierazi dira, eta eraikinaren erabilerean eta kanpoaldeko zarata mailaren arabera bete behar dira

7. Eragindako pertsonen murrizketaren balioespena

Idatz-zati honen helburua kalitate akustikoko helburuak (KAHak) ez betetzea dakarten soinu mailen eraginpean dauden pertsonen murrizketaren hasierako balioespena egitea da, Ekintza Planaren proposatutako jarduketaren ondorioz.

Hasierako balioespen horretan lortutako datuak neurri zuzentzaileen diseinuan sartzen diren xehetasun azterlanetan eta eragin akustikoko azterlanetan edo saihasbide berriak garatzeko proiektuetan zehaztuko dira.

